

Kameraren aginteak (I): enfokea


Itziar Nogeras

Aurreko alean esan bezala, foku finkoko kamerez 2 m eta infinitua bitartekoa atera daiteke araz. Hurbilagoa enfokatu ahal izateko, foku aldakorreko, (hau da, pelikulara hurbildu zein urruntzen den objektiboko) kamera behar da. Subjektua edo gaia, objektibotik zenbat eta hurbilago egon, hainbat eta pelikulatik atzealderago erazten da irudia. Horregatik, enfo-

katzeko objektiboak pelikulatik urrundu egin beharko du.

Enfokatu ahal izateak bi abantaila nagusi ditu: oso hurbil dauden objektuen argazkiak atera ahal izatea eta irudiko zernahi berori bakarrik enfokatzuz nabariarazi ahal izatea.

Objektiboak distantzi eskala daraman enfokatzeko eraztuna dauka. Eraztun zabalena izan ohi da, gainera. Erreferentzi puntu finko batekiko higitzen da.



Horretarako, objektiboak distantzi eskala (batzuetan ikur-eskala) daraman eraztuna dauka (ikus goiko irudia). Eraztun zabalena izan ohi da, gainera. Erreferentzi puntu finko batekiko higitzen da, nahi edo behar den distantzia aukeratzuz.

Eskalaren mutur batean infinitua (∞) dago; distantzia maximoa, alegia. Posizio horretan, objektiboa pelikularekiko distantziarik txikien dago eta urrutiko (eskuarki, 15 m baino urrunagoko) irudiak enfokatzeko ditu. Beste muturrean distantzia minimoa dago. Posizio horretan, objektiboa pelikularekiko distantziarik handien dago. Distantzia hau, objektiboaren kalitatearen baitan dagoenez, objektibo batetik bestera aldatu egiten da.

Distantzia aukeratzeko, kamera sinpleetan, subjektua edo gaiaren



2 m-tik behera enfokatutako argazkia. Aurreko arrainak daude enfokatuta.

9 m-tik gora enfokatutako argazkia. Atzeko etxea dago argazki honetan enfokatuta. Horrela irudiko puntu jakin bat edo batzuk nabarmenarazi daitezke, begiez inkontzienteki egiten dugun moduan.





eta kameraren arteko distantzia kalkulatu egin behar da. Kalitate handiagoko zuzeneko bisorea duten kamerek ostera, telemetroa dute. Beronen bidez, bisorean argitsuena den erdiko zatian irudiak bikoiztuta ikusten dira, eta, enfokatuta egon dadin, irudi bikoitz horrek bakarria osatu behar du.

Reflex kameretan, duten bisore-sistemari esker, objektiboak pelikulan eratzten duen irudi berbera azaltzen zaigu begi aurrean. Beraz, nahikoa da objektiboaren eraztuna irudia aratz ikusi arte mugitzea. Kamera hauetan, objektiboa eta enfokatzeko pantailaren arteko distantzia eta objektiboa eta pelikularen artekoa

bera da. Hori dela bide, pantailan enfokatuta dagoen guztia, pelikulan ere halaxe egongo da. Paralai errorerik (81. alean esplikatuta da paralai errorea zer den) gainera, ez da izango.

Zenbaitetan, pantailaren erdian bi prisma txiki egoten dira. Irudia desenfokatuta dagoenean, zona horretan irudia erdibituta ikusten da. Beste zenbaitetan, prisma txiki-kiz osatutako sare antzekoa egoten da, desenfokatuta dagoenean bikortxoak azaltzen direlarik.



Zenbait kameratan, pantailaren erdian bi prisma txiki egoten dira. Irudia desenfokatuta (goiko irudia) dagoenean, zona horretan irudia erdibituta ikusten da. Beheko irudia ongi enfokatuta dago.

Zerorrek froga zenezake

Irudi (paisaje bat, adib.) beraren bi argazki atera. Irudian hobe aurrealdean, gertu, zerbait bada-go (pertsona bat, landare bat, zuhaitz bat, adib.) Bi argazki atera: bata, 9 m-tik gora enfokatuta; bestea, 2 m-tik behera enfokatuta, hau da, aurrealdean dagoena enfokatuta.